

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuarekin asetuko ditugun beharrak, honako hauek izango dira; **familiak egituratzea, haurren eskubideak aldarrikatzea, tratu txarrak ebaztea, herritarra lan mundura zabaltzea, gizarte-komunitate bat sortzea, aniztasun funtzionala lantzea, ohiturak, kultura ezberdinak ezagutzea, lantzea, eta azkenik, hezkuntza eta familien lotura sustatzea. Horrela, administrazioak dituen hutsuneak beteko genituzke prebentzio lanak eginez. Izan ere, gizarte zerbitzuak kasu larrietan zentratzen da, eta Isladak emango lukeen zerbitzua, beste arazoei erantzuna ematen saiatzea izango litzateke aholkularitzaren bitartez.**

Honenbestez, biztanleriaren beharrak identifikatu eta kontuan hartuta zerbitzua eskaintzea izango da gure funtsa; familia arloan, sozialean zein psikikoan dauden arazoak ebazteko bidea jarriko dugu. Are gehiago, bizikidetzan ahalik eta eragin negatibo txikiena izaten saiatu eta zerbitzu egokia eskainiko dugu.

**ISLADA laguntza zerbitzu aktiboa** gure gizartean berritzailea eta ezinbestekoa dela uste dugu herritarrentzat. Izan ere, komunitate bat ongi joateko eta elkarbizitza on bat emateko gure zerbitzua behar-beharrezkoa da. Gainera, arlo ezberdinetako informazioa emango dugu herritarren ongizate integrala bermatzeko. Ordutegiak familien beharretara egokituko ditugu.

Bestalde, behar espezifikoak dituztenek, konfidentziasuna behar dutenak esate baterako, lehen aipatutako bulego txikira bideratuko ditugu.

Azkenik, herritarren beharrak asetzeko, herri mailan galdeketa bat egingo dugu biztanleriaren kezka zeintzuk diren ezagutzeko eta horiei erantzuna emateko.

